

IDAZLEAK

1.—AURRERA

"Zer" gure aldizkaria aurrera ta aurrera doa bere bidea egiten eta laster, aurtengo udaldian, beteko dira ogei ta bost urte lenengoz agertu zala.

2.—IDAZLEAI EZKERRAK

Olako bide-aldia ez dau egiten batek bakarrik, eta ez talde txiki batek be. Askoren laguntza bear da: Irakuricak, ordaintzailleak, kobratzailleak, bialtzailleak, kontu-eroa-leak, irarkolako langilleak, zuzentzailleak eta abar.

Baiña oraingo onetan idazleai begiratzen dautset era bereizi baten: Zenbat idazlek idatzi dauan gure aldizkarian ogei ta bost urte oneitan! Eta guztiak duan! Ezertxu be kobrau barik! Lan orrek benetako abertzaletasuna agertzen dau eta poztu egiten gaitu. Eskerrak guztiai!

3.—IRU EKINTZA

Geure egin-bearra dala uste dogu geure idazleak sortzea ta ugaritzea eta au be aberri-lana da. Bere elertia bizi daukan aberriak bizia galtzeko arrisku gitxiago dauka.

3.1.— IPUIN-SARIKETA

Urtero eratzen dogu, Bilbao'ko Udalaren laguntzaz gure Ipuin-Sariketa. Ez dira asko idazleak, baiña urtero etorten dira barriren batzuk. Gaiñera ipuin sarituak argitaratu egiten doguz eta orrelan idazteko gogoia zabaltzen da. Zenbaki onetan datoz igazko saridunen izenak.

3.2.— EUSKAL-ASTEA

Idazleak sortzeko bigarren ekintza da au: Urtero bost iziari egiten dabe itz gure eukal-astea eta eurak idazten daben itzaldia ZER'en agertzen da, irakurleen jakintzarako. Foru-Aldundia lagun ona dogu.

3.3.— EGUTEGIA

Ba-daroaguz ogei ta bost-bat urte eguneroko orritxua daukan egutegia argitaratzen. Asko dira bizi-bizi eskatzen dabenak eta irakurten dabenak eta sei-bat izaten gara idazten dogunak. Orrelan etxe-barrura sartzen da gure euskereia. Pozik gagoz Bilbao Bizkaia Kutxa (b.b.k=)'ren laguntaz ateraten dogun egutegi onegaz. Euskereia zabaltzen dogu eta orrelan sortzen dira idazleak.

4.—GAIAK

Gure aldizkari onetan edozein gai erabilli leike, baiña geien agertzen diranak euskereia, elertia edo literatura eta edestia edo kodaira dira. Errez ikusten da gai oneik oso zabalak dirala.

5.—BIZKAIERAZ

Irakurle batzuk dana bizkaieraz idaztea nai dabe eta ori esaten dauskue eta orretarako alegindu be egiten gara, baiña giputzakaz dogun alkartasunak beartzen gaitu euren idaz-lanak be artzera, noizean bein beintzat.

6.—IRAKURTEN DA?

Iñoz idazleari olako zerbait bururutzen jako: Iñok irakurten ete dauz gure idazkiak?

Eta itaundu be egin dogu. Milla ta berreun ale inguru zabaltzen doguz eta artzen dabezenen artean mota oneik aurkitzen doguz:

— Batzuk dan-dana, itzik galdu barik, irakurten dabe.

— Beste batzuk asieratik azkenera begiratzen dabe, ez dana irakurri.

— Beste batzuk jakin be ez dakie euskereia, baiña laguntzeko oraintzen dabe.

—Asko dira arpidedun izan barik etxean irakurten dabenak.

7.—ZABALKUNDEA

Ogeita bostgarren urtea dala-ta, Bizkaia-Irratian iragari dogu gure aldizkaria. Astea bein entzuten da iragarkia, baiña oso gitxi da. Zabalkunde geiago egin bear dogu.

Irrati-bidez egiten dan zabalkunde arraintzarako sarearen antzekoa da, baiña orrez gaiñera irakurle bakoitzak amuac,az egin bear dau arraintzan.

Erri batzutan ainbat arpidedun daukaguz, baiña askotan bat bera be ez.

8.—POZIK

Pozik diardugu ba geure lanean, erriaren alde duan egiten dan lanak emoten dauan pozagaz, baiña ezin ukatu eragin aundiagoa bear dauala gure ekintzak.

OLAZAR'tar Martin'ek

Euskerazaleak

Ipuin-sariketa 2001

LENENGO SARIA.....	MURUA ta GOÑFtar Jose M.'
BIGARREN SARIA.....	ARRINDA'tar ANES
IRUGARREN SARIA.....	GOIKOETXEA'tar Iñaki
LAUGARREN SARIA.....	AURRE APRAIZ'tar Balendin
BOSTGARREN SARIA.....	LEGARRETA'tar Asier

BILBAO'n. 2002n.urteko urterillan

APAI-MAIKOAK